

## 6. PRAKTIKA

Praktikaren izenburua: artikulu bati buruzko gogoeta

Praktika mota: gogoeta-jarduera

Irakurri testu hau: Garcia, M. (2012). Irakasleen prestakuntza. Irakasle gogoetatsuaren premia. *LARRUN pentsamendu aldizkaria*, 169, 1-15.

Jarraian, erabili azpian dituzun galderak gida gisa, zure gogoeta egiteko:

- Artikuluan agertzen diren hiru ideia aukeratu. Zergatik aukeratu dituzu?
- Zer ideia, errealitate eta esperientziarekin lotu duzu artikuluan esaten dena? Zergatik?
- Lanbideko kide bati gomendatuko zenioke artikulu hau? Zergatik?
- Bakoitzak sartu nahi dituen ekarpenak

## ERANTZUNA

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

Azken urteotan, gizarteak bilakaera handia izan du. Gizartea aurrera doan heinean, hezkuntza sistema bere baitara egokituz joan beharko da, aldaketa guzti horiek bere gain hartuz. Hau guztia kontuan izanda, irakasleen **prestakuntza ezinbestekoa da eta horren inguruan aritu dira Irene López Goñi, Mariam Bilbatua, Abel Ariznabarreta eta Seaskako arduradun pedagogikoa Jean Mixel Etxegarai.**

Aipatu bezala, gaur egungo eta etorkizuneko irakasle profila, nahi dugun eta daukagun gizarte eredura egokitu beharko da. Gizarte bikoitia terminoak uniformeagoa eta globalagoa den, eta aldi berean, dibertsifikatzearen alde egiten duen gizarteari egiten dio erreferentzia. Gizarteak dituen berezitasunak ikasgeletan islatuko dira; beraz, aniztasunari erantzuteko prestatutako irakasleak beharko dira. Gainera, informazioaren gizartean, datuak eskuratzeko eta tratatzeko gaitasuna garatu eta hau irakasten ikasi beharko dute. Halaber, gizarte bakoitzak behar eta helburu desberdinak izango ditu eskolari erreparaturik. Euskal Herriko irakasleek, hezitzaile, tutore eta kudeatzaile funtzioak izango dituzte, funtzio sozialarekin batera: gure kultura eta hizkuntzaren transmisioa. Egia esan, gaur egungo gizartean eskolako zeregina ez da eduki akademikoen irakaskuntzara mugatzen.

Irakasleen prestakuntzari dagokionez, oinarri batzuk zehaztuta daude; horien artean, pedagogikoak izatea, metodologiak menperatzea, bere gaitetan aditu izatea eta antolatzen jakitea ikasle, irakasle, guraso eta norbere buruarekin. Irakaslearen profil integrala irakaslea pertsona gisa formatzeari egiten dio erreferentzia, gizarteko partaide gisa konpetentziak garatzeari. Egia esan, hezkuntza komunitatean, ikaskuntza eskolako hormetatik haratago joan behar da, ikasgela auzora, herrira eta mundura zabalduz. Prestakuntza prozesuan, irakasle gogoetatsuaren irudia bultzatu nahi da, dituzten zailtasun eta irtenbideen inguruan hausnartzeko gai izan daitezen. Dena den, gabezi garrantzitsuak dago hizkuntza konpetentziaren arloan. Egun, egiaztatze probarik gabe euskaraz arituko den irakasle izatea ahalbidetzen zaie euskaraz ikasi dutenei. Ondorioz, euskara hizkuntza eredia pobrea izaten ari da eta horrek eragina dauka ikasleen garapen osoan (hizkuntza gaitasunean, lorpen akademikoetan, etab.). Irakasle eta irakasle-gaien artean desberdintasun handia dago; beraz, hizkuntzak irakasteko metodologietan esku-hartzearen beharra ikusten da. Faktore sozialek eragin handia dute horretan. Aipatzekoa da azkenaldian gaitasunetan aurrera egitea lortu dela, baina erabileran ez. Irakasleek euskara ezagutzak integratu beharko dituzte, ondoren, haiek ikasleak motibatzea ahal izateko.

Ikasleak motibatzen jakitea ezinbestekoa da. Barne motibazioa bultzatu behar da, eta gogoak pizteko, ikasitakoari zentzua eman behar zaio. Era berean, ikasle guztien arrakasta bermatu behar da denak aurrera egin dezaten, eta horrek, lotura handia du irakasleak dituen igurikapenekin. Igurikapen altuak dituen irakasleak taldeko eta banakako hurbileko jarraipenak egin beharko ditu. Ikasleak motibatzeak edukiak eta metodologiak aldatu edo egokitu beharko

ditu eta lortutako emaitzen inguruan hausnartzeak lagunduko du. Era berean, ebaluazio-sistema prozesuari lotuta egon beharko da, eta ez soilik edukietara mugatua.

Bestalde, etengabeko prestakuntzan hutsuneak daude ere, egia esan, administrazioko hezkuntza ereduak 80. hamarkadako eskema klasikoa da. Hezkuntza sistemak bilakaera izan du eta irakasle asko euren kabuz egokitu behar izan dira. Irakasleek benetako prestakuntza prozesuak behar dituzte eta Berritzeguneak lagungarriak izan dira bide horretan. Dena den, Berritzeguneek eta ikastetxe bakoitzak egokitzeko eta erabakiak hartzeko duten autonomia handitu behar da. Izan ere, administrazioaren hezkuntza markoaren menpe daude. Amaitzeko, etengabeko prestakuntzari lotuta, etengabeko ebaluazioa egotea garrantzitsua da, zertan hobetu behar den jakiteko.

Ipar Euskal Herriko ikastolen elkarteak, Seaskak, sistema propioa du irakasle izateko. Lehenik eta behin, 3 urteko gradua osatu behar da, eta ostean, 2 urteko masterra. Hala ere, oso ikasketa teorikoak dira eta teoria praktikara eramatean bide luzea dute oraindik. Seaskan graduarekin soilik lan egitera doazen irakasleak, ordezko hartzen dituzte eta urte horietan zehar formakuntza jasotzen dute erakundearen partetik, gero masterrera salto egiteko.

Horrenbestez, zenbait ondorio atera daitezke, nabarmenena, irakasle izatearen kontzientzia garatu daitekeela. Edonola ere, oraingo eta etorkizuneko irakasleak hobetzen laguntzeko bidean prestakuntza eta eskura dauden baliabideak eskaini behar zaizkie.